


NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk uste du ez dela oso probablea inflazioa bere helburura itzultzea 2025a baino lehen

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Apirilean argitaratutako txosten berri batean, NDFk aurreikusten du munduko produkzioaren hazkundera 2022ko %3,4tik %2,8ra motelduko dela 2023an, eta %3,0ra suspertuko dela 2024an. Hazkunde tasen apaltze hori nabarmenago gertatuko da ekonomia aurreratuetan, Europak Ukrainako gerrarekiko esposizio handiagoa duelako, eta, AEBen kasuan, bertako inflazio prozesuaren dinamikagatik. Suspertzen ari diren ekonomiei dagokienez, Txina %5etik gora haztea espero da, ekonomia berriro ireki ondoren.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2022	2023	2024	2023	2024
Munduko ekonomia	3,4	2,8	3,0	-0,1	-0,1
Ekonomia aurreratuak	2,7	1,3	1,4	0,1	0,0
AEB	2,1	1,6	1,1	0,2	0,1
Eurogunea	3,5	0,8	1,4	0,1	-0,2
Alemania	1,8	-0,1	1,1	-0,2	-0,3
Frantzia	2,6	0,7	1,3	0,0	-0,3
Italia	3,7	0,7	0,8	0,1	-0,1
Espainia	5,5	1,5	2,0	0,4	-0,4
Erresuma Batua	4,0	-0,3	1,0	0,3	0,1
Japonia	1,1	1,3	1,0	-0,5	0,1
Garatzen ari diren herrialdeak	4,0	3,9	4,2	-0,1	0,0
Txina	3,0	5,2	4,5	0,0	0,0
India	6,8	5,9	6,3	-0,2	-0,5
Errusia	-2,1	0,7	1,3	0,4	-0,8
Brasil	2,9	0,9	1,5	-0,3	0,0


EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Aurreikuspenen arabera, inflazio globala 2022ko %8,7tik 2023ko %7,0ra jaitsiko da. Hala ere, azpiko inflazioa, hau da, elikagai freskoak eta energia alde batera uzten ditue-na, askoz motelago jaitea espero da 2023an, %0,2 soilik, eta horrek iraunkortasun handia islatuko luke. Oro har, ez da espero inflazioa banku zentralek finkatutako helburuetara itzultzea, kasu gehienetan, 2025a baino lehen.

Hala, banku zentral gehienek moneta politika murriztailearekin jarraitzea aurreikusten da, nahiz eta finantza sektorean tentsio berriak izan eta zorpetze publiko handiko ingurune globalak arriskuak gutxitzeko eta finantza egonkortasuna babesteko neurri horiek leun-tzea ekar lezakeen.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.